KULTURA SAILA

6428

EBAZPENA, 2008ko urriaren 2koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, EAEko aztarnategietan, baimenduriko ekintzen bidez, aurkitu diren gai arkeologiko eta paleontologikoen inbentarioa egiteko diru-laguntzak emateko dena. Diru-laguntza hauek Kultura sailburuaren 2008ko maiatzaren 7ko Aginduari jarraiki eskatutakoak dira.

Ekainaren 9ko 108. zenbakiko EHAAn argitaraturiko Kultura sailburuaren 2008ko maiatzaren 7ko Aginduaren bidez, 2008ko ekitaldian EAEko aztarnategietan baimenduriko ekintzak direla bide aurkituriko gai arkeologiko eta paleontologikoak sailkatzeko diru-laguntzen araubidea ezarri da.

Ondoren aipatzen diren pertsona fisiko edo juridiko-pribatuak dira ezarritako epearen barruan diru-laguntza eskatu zutenak: Harpea Kultur Taldea, Lydia Zapata Peña, Haedera 2000 S.L., Silvia Cajigas Panera, Euskoiker, Paquita Sáenz de Urturi, Arkeodoc S.C., Iterbide S.C., Gesarke S.C., Sociedad de Ciencias Munibe Taldea, Maitane Oyarzabal, Aranzadi Institutua S.L., Arkeolan (Centro de Estudios Históricos y Arqueológicos), Zehazten Zerbitzu Kulturalak S.L. eta Insub.

Maitane Oyarzabalek uko egin zion eskatutako laguntzari, Artegietako aztarnategiko materialen inbentarioa egiteko zena. Eta horrela adierazi zigun berak bidalitako idatzian (Kultura Sailan erregistratuta, 2008ko irailaren 11n)

Aginduaren 13. artikuluan adierazitako Balorazio Batzordea bildu ondoren, eta eskaerak baloratutakoan, batzordeak ebazpen proposamena aurkeztu zuen 2008ko irailaren 15ean. Balorazio-irizpideak Aginduaren 12. artikuluan ezarritakoak izan ziren.

Balorazio Batzordeak egindako proposamena ikusita, eta Aginduaren 14. artikuluari eta ezar daitezkeen gainerako beste xedapen orokorrei jarraituz,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– I. eranskinean adierazten diren eskatzaileei dirulaguntzak ematea.

Bigarrena.– Dirulaguntza ez ematea ebazpenaren II. eranskinean adierazten diren pertsona eta erakundeei, eranskinean adierazitako arrazoiengatik.

DEPARTAMENTO DE CULTURA

6428

RESOLUCIÓN de 2 de octubre de 2008, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se conceden las subvenciones para el inventariado de los materiales arqueológicos y/o paleontológicos descubiertos como resultado de la ejecución de intervenciones autorizadas, en yacimientos arqueológicos localizados dentro del ámbito territorial de la CAV, solicitadas al amparo de la Orden de la Consejera de Cultura, de 7 de mayo de 2008.

Por Orden de 7 de mayo de 2008, de la Consejera de Cultura, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 108 de nueve de junio, se establece el Régimen de Subvenciones para el desarrollo de actividades en el ejercicio 2008 en el ámbito de la catalogación de materiales arqueológicos descubiertos en yacimientos arqueológicos localizados dentro del ámbito territorial de la CAV.

Dentro del plazo establecido al efecto han presentado solicitud de subvención las siguientes personas físicas y/o personas jurídico-privadas: Harpea Kultur Elkartea; Lydia Zapata Peña; Haedera 2000, S.L.; Silvia Cajigas Panera; Euskoiker; Paquita Sáenz de Urturi; Arkeodoc, S.C.; Iterbide, S.C.; Gesarke, S.C.; Sociedad de Ciencias Munibe Taldea; Maitane Oyarzabal; Aranzadi Institutua, S.L.; Arkeolan (Centro de Estudios Históricos y Arqueológicos); Zehazten Zerbitzu Kulturalak, S.L. e Insub.

Maitane Oyarzabal desiste en su solicitud para el inventariado de materiales del yacimiento de Artegieta comunicándolo mediante escrito con fecha de entrada en el registro del Departamento de Cultura de 11 de septiembre de 2008.

Reunida la Comisión de Valoración prevista en el artículo 13 de dicha Orden, y una vez valoradas las solicitudes, presentó su Propuesta de Resolución sobre su concesión el 15 de septiembre de 2008, estableciendo los criterios de valoración de acuerdo con el artículo 12 de la Orden.

A la vista de la propuesta formulada por la Comisión de Valoración, y de acuerdo con el artículo 14 de la mencionada Orden y demás disposiciones de general aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Conceder subvención a los solicitantes por los importes que se detallan en el anexo I.

Segundo.– Denegar la subvención solicitada para la ejecución de los proyectos que se detallan en el anexo II por las personas y/o entidades que se señalan en el mismo anexo.

Hirugarrena.– Onuradunek agindu arautzailearen baldintzak bete beharko dituzte, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arloan indarrean dauden gainerako guztiak ere.

Laugarrena.– Diruz lagundutako jarduera guztiak 2008ko abenduaren 31rako bukatuta egon beharko dute Agindu arautzailearen 17. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena.– Emandako diru-laguntzen justifikazio, kitapen eta ordainketari dagokienez, Aginduaren 17., 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoari begiratuko zaio, kontuan hartuz bertan adierazten den dokumentazioa Euskal Kultura Ondarearen Zentroan aurkeztu beharko dela bi hilabeteko epean, diruz lagundutako jarduera amaitzen den egunetik hasita, eta edonola ere, 2009ko otsailaren 28a baino lehen. Diru-laguntza jaso duten jardueren exekuzioaren justifikazioa jardueren aurrekontuekiko egingo da, emate-agirian zehazturiko aurrekontuekiko, zergak kontuan hartu gabe, eta Agindu arautzailearen 18. artikuluan ezarritako gainerako xehetasunei jarraiki.

Seigarrena.– Agindu horren pentzutan emandako diru-laguntzak ordainketa bakar batez abonatuko dira, 17. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Zazpigarrena.– Ondoren aipatzen diren pertsona fisiko edo juridiko-pribatuei ebazpen hau jakinaraztea: Harpea Kultur Elkartea, Lydia Zapata Peña, Haedera 2000 S.L., Silvia Cajigas Panera, Euskoiker, Paquita Sáenz de Urturi, Arkeodoc S.C., Iterbide S.C., Gesarke S.C., Sociedad de Ciencias Munibe Taldea, Aranzadi Institutua S.L., Arkeolan Centro de Estudios Históricos y Arqueológicos, Zehazten Zerbitzu Kulturalak S.L. e Insub. Halaber, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kultura sailburuari hilabeteko epean, doakienek jakinarazpena jaso edo Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 2a.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

Tercero.– Los beneficiarios propuestos quedan sometidos a las condiciones establecidas por la Orden reguladora y a cuantas otras que con carácter general rijan en el ámbito de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Cuarto.– Se fija el límite temporal, momento para el cual han de estar concluidas todas las actividades subvencionadas, el día 31 de diciembre de 2008 conforme a lo dispuesto en el artículo 17 de la Orden reguladora.

Quinto.– En lo que respecta a la justificación, liquidación y pago de las subvenciones concedidas, se estará a lo dispuesto en los artículos 17, 18 y 19 de la Orden, teniendo en cuenta que la documentación que se indica en la misma deberá presentarse en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco en el plazo de dos meses desde la fecha de finalización de la actividad subvencionada, y en todo caso, antes del 28 de febrero de 2009. La justificación de la ejecución de las actividades a las que se ha otorgado subvención versará sobre el presupuesto de las mismas y que se ha detallado en el presente otorgamiento, impuestos incluidos, además del resto de extremos que se establecen en el artículo 18 de la Orden reguladora.

Sexto.– Las subvenciones concedidas con cargo a la citada Orden, se abonarán en un único pago, de acuerdo a lo señalado en el artículo 17 de la misma.

Séptimo.– Notificar la presente Resolución a Harpea Kultur Elkartea; Lydia Zapata Peña; Haedera 2000, S.L.; Silvia Cajigas Panera; Euskoiker; Paquita Sáenz de Urturi; Arkeodoc, S.C.; Iterbide S.C.; Gesarke, S.C.; Sociedad de Ciencias Munibe Taldea; Aranzadi Institutua, S.L.; Arkeolan Centro de Estudios Históricos y Arqueológicos; Zehazten Zerbitzu Kulturalak, S.L. e Insub, solicitantes de las ayudas previstas en la Orden de 7 de mayo de 2008, y publicar la misma en el Boletín Oficial del País Vasco, para su general conocimiento.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Cultura, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de su notificación por los interesados o de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de octubre de 2008.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
GURUTZ LARRAÑAGA ZUBIZARRETA.

I. ERANSKINA / *ANEXO I*

Diru-laguntza jasoko duten eskatzaile eta proiektuen zerrenda
Relación de solicitantes y proyectos a los que se concede subvención

Eskatzailea *Solicitante*	Proiektua *Proyecto*	Emandako zenbatekoa (euroak) *Importe concedido (euros)*
Aranzadi Institutua, S.L.	Ametzagaina (Donostia)	12.381,70
Aranzadi Institutua, S.L.	Boluntxo (Oiartzun)	1.593,28
Aranzadi Institutua, S.L.	Aldatxarren (Mendaro)	9.345,24
Aranzadi Institutua, S.L.	Urtiagako (Deba)	4.668,33
Arkeodoc, S.C.	Páganos 23 (Laguardia)	749,85
Euskoiker	Andra Maria katedrala / *Catedral Santa María (Vitoria-Gasteiz)*	28.434,59
Gesarke, S.C.	Calle del Medio, Sarrea 10 (Bernedo)	2.518,63
Haedera 2000, S.L.	*Arrabal de Tenerías* / Zurrategien errebala, *Plaza del Reloj-Calendario* / Erloju-Egutegiaren enparantza (Balmaceda)	8.491,78
Harpea Kultur Taldea	Arlanpe (Lemoa)	1.839,89
Insub	Higer (Hondarribia) eta La Conchako (Donostia-San Sebastián) itsaspeko aztarnategiak *Yacimientos submarinos de Higer (Hondarribia) y Bahía de La Concha (Donostia-San Sebastián)*	4.974,98
Silvia Cajigas Panera	Zaharra 12, 14, 16 (Urduña-Orduña)	18.527,51
Sociedad de Ciencias Munibe Taldea	Etxeberri VII (Mendaro)	488,92
Sociedad de Ciencias Munibe Taldea	Astigarraga (Deba)	1.408,43
Sociedad de Ciencias Munibe Taldea	Kiputz IX (Mutriku)	5.862,76
Zehazten Zerbitzu Kulturalak, S.L.	Galatras-Escorza Jauregia eta ingurunea (Pasaia) *Palacio Galatras-Escorza y entorno (Pasaia)*	6.914,11

II. ERANSKINA / *ANEXO II*

Dirulaguntzarik jasoko ez duten eskatzaileak eta ukatzearen arrazoiak
Proyectos y solicitantes a los que no se concede subvención y motivo de la denegación

Eskatzailea/*Solicitante*: Paquita Sáenz de Urturi
Proiektua/*Proyecto*: Vitoria-Gasteiz: Pintorería 6 - Correría 103 (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Gesarke S.C.
Proiektua/*Proyecto*: Virgen Blanca (Vitoria-Gasteiz) (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Iterbide S.C.
Proiektua/*Proyecto*: Despoblado de Quintana (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Zehazten ZK, S.L.
Proiektua/*Proyecto*: Bergara: Domingo de Irala - Barrenkale (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Aranzadi Institutua, S.L.
Proiektua/*Proyecto*: Santa M.ª la Real (Zarautz) (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Lydia Zapata Peña
Proiektua/*Proyecto*: Balzola (Dima) (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Qark, S. Coop. (*)
Proiektua/*Proyecto*: Corazón de María (Bilbao) (*)

Eskatzailea/*Solicitante*: Arkeolan (*)
Proiektua/*Proyecto*: San Bartolomé Área CE.05 (Donostia-San Sebastián) (*)

(*) Ukatzearen arrazoia: ez du erdietsi Balorazio Batzordeak ezarritako gutxienezko puntu kopurua (71 puntu). / *Motivo de la denegación: no haber alcanzado la puntuación mínima (71 puntos) establecida por la Comisión de valoración*